

Depresioa eta infartua

M iokardioko infartua izan ondoren, gaixoek askotan lo egin eza, nekea eta apetitu falta izaten dituzte. Quebec-en berrehun baino gaixo gehiagorekin egin den inkesta batek dioenez, horiek infartuaren ondoko % 15-20tan izaten diren depresioaren sintomak dira. Depresioak jotakoek infartuaren ondorengo sei hilabete-etan hiltzeko arriskua normalean baino hiru aldiz handiagoa izaten dute. Ikusteko dago depresioaren kontrako tratamenduak zer-nolako eragina izan dezakeen.

Miokardioko infartua izan ondoren, gaixoek askotan lo egin eza, nekea eta apetitu falta izaten dituzte.



HIES gaixotasuna sendatu nahian

H IES gaitzaren eragile den VIH izeneko birusa galtzeko, borroka proteasa izeneko entzi-



HIES gaitzaren eragile den VIH izeneko birusa galtzeko, borroka proteasa izeneko entzimari egin behar zaiola diote adituek.

mari egin behar zaiola diote adituek. Goiko irudian ikusten den bezala, proteasaren alderdi aktiboa eraztun baten erdialdean dago.

Eraztunaren "zuloa" beteta badirudi entzimaren lana geraraz daitekeela, eta horixe da Kalifornian San Frantziskoko unibertsitatean egin nahi dutena. Simon Friedman ikasleak iradokitakoaren arabera, karbono 60 elementuzko bola bat kokatu nahi dute eraztunaren zentruan. *In vitro* saiakuntzak egiten ari dira eta karbono 60aren fuleroiden izeneko forma erabiltzen dute. Badirudi proteasaren eragina inhibititu egiten duela. Geroak esango du urratzen hasiak diren bide berri honek zer-nolako fruituak ematen dituen.

Tabakoaren eragin ezezagunak

O rain arte dakigunez, tabakoak kasu batean baino ez du mesede egiten: errektokolitis ultzero-

hemorragikoan. Eragin kaltegarriak aldiz, asko dira. Ezagunenak birikako minbizia, bronkitis kronikoa eta gaixotasun baskularrak ditugu, baina horiez gain maskuriko eta umetoki-lepoko minbiziak, asma, rinitis alergikoa, emakumeengan antzutasuna eta (azken datuen arabera) bularreko haurrak bapatean hiltzea.

Kolesterol "astunak" ez omen du babesten

K olesterolean bi gantz-mota daude: lipoproteina arinak edo LDL (Low Density Lipoproteins) izenekoak (arteriosklerosia sortzen dutenak), eta lipoproteina astunak (HDL izenekoak). Azkenaldian ikerketa epidemiologikoetan oinarrituz lipoproteina astunek arteriosklerosetik babestu egiten zutela uste zen. Odolean lipoproteina astunak ugari eta arinak gutxi ziztuztenek, arrisku txikiagoa zutela pentsatzen zuten.

Egin berri den ikerketa batek frogatu duenez ordea, odolean HDL lipoproteina gutxi denetan ateroma edo arteriosklerosia ez du horregatik aurrera egiten.

Gasola eta minbizia

A lemanian egin den eta "Der Spiegel" aldizkariak argitaratu duen ikerketa batek dioenez, minbizien % 2 automobilek jaurtitako errektuntza-gasek eragindakoak dira; gasoila erreta sortutako keak eragindakoak, batez ere. Ikerketa, Alemaniako "Länder" etako Ingurugiro-ministeritzetako batzorde batek burutu du.



Minbizien % 2 automobilek jaurtitako errektuntza-gasek eragindakoak dira.

